

## ?Navarra emprende? Proiektua (NAFARROA EKINTZAILE)

*navarraemprende.com* [Nafarroako Gobernuak](#) bultzatzen duen atari publiko-pribatu bat da, Nafarroako Foru Komunitateko ekintzaile eta autonomoei eduki jakingarri, praktiko eta interesgarriak eskaintzeko sortu dena (informazioa eta zerbitzuak).

Ekimen hau [Nafarroako 2017-2019 II. Ekintzaitza Plana](#)ren baitan jaio da.

*navarraemprende.com* webgunean biltzen da [Ekintzaitzari laguntzeko nafar sare](#)aren eskaintza, eta Sare horren barrenean sartuak daude Foru Komunitatean ekintzaitza sustatzea helburu duten hainbat erakunde eta entitate.

Honako hauek dira *navarraemprende.com* ekimenaren helburuak:

? Nafarroako ekintzaitzari buruzko informazio garbi eta ahalik eta osoena ematea.

? Nafarroako ekintzaileei laguntza ematea beren enpresak abian jartzen.

? Autonomoen kolektiboko kideei laguntzea, beren eguneroko jardunean.

? Ekintzaitzari laguntzeko nafar sarearen jarduerak ezagutzera ematea.

[CEIN](#) sozietate publikoaren esku dago (Nafarroako Enpresen eta Berrikuntzaren Zentro Europarra) *navarraemprende.com* webgunearen kudeaketa, betiere [Nafarroako Gobernua](#) ekimenaren zuzendari eta finantzakide izanik.